



PELLO SALABURU

**PANFLETO BAT
ATZENDURAREN KONTRA**

erein

PANFLETO BAT
ATZENDURAREN KONTRA

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntza jaso du.

1. argitalpena: 2025eko urrian

Azala, liburuaren diseinua eta maketazioa:

Erein

Azaleko argazkia:

Zipirio

© Pello Salaburu

© EREIN. Donostia 2025

ISBN: 978-84-1093-062-9

L.G.: D 828-2025

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzaila: Gertu inprimategia

Zubillaga industrialdea, 9

20569 Oiñati, Gipuzkoa

T 943 783 309

gertugrafika@gmail.com

www.gertu.net



Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasangarrian kudeatutako basoetatik dator.

PANFLETO BAT ATZENDURAREN KONTRA

Pello Salaburu



Beñat eta Ibon,
zuek zarete gauez iratzartzen nauten iza-
rrak. Joaten naizelarik ikusten dudan hau
baino mundu hobea nahi nizueke utzi.

Maite, Alberto:
Esker mila! Badakizue biziki estimatzen
dudala zuen iritzia.

OHARÑOIA

Atzendura zer den

Hiztegietan *atzendura* baino maizago ageri diren *ahazte*, *ahantzte*, *ahantzura*, *burutik joan*, *arrotze*, *oroiez* eta holarakoen sinonimotako hartzen ahal da, termino horrek idazki klasikoetan lekukotasun gutiago baldin badu ere. Zer erran modernoetan, Iñaki Seguiolaren adibide bat baizik ez baitut ikusi. Baina Baztango nire sorlekuko hizkeran *atzen*du ibiltzen dudanez, iduritu zait *atzen*du-rarekin hobeki konponduko naizela. Hori, formari dagokionez.

Termino horien erranahia zehaztu nahi izanez gero, berriz, edozein euskaldunek daki zer den. Zertsu den, hobeki erran. *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* hautu bat baino gehiago ematen du: «Zerbaiten edo norbaiten oroitzapena galdu, gogoan ez eduki»; «Ikasi den zerbait egiteko edo erabiltzeko gaitasuna galdu»; «Zerbait oharkabea utzi»; «Zerbaitetarako ohitura edo trebetasuna galdu». Hori guzia bada, jakina.

Biercek ematen du Xabier Olarrak itzuli dion *Deabruaren Hiztegia* liburuan bertze definizio bat, estandarretik pixka bat aldentzen dena: «Gaiztoek borrokatzeari utzi eta krudelek bakea ematen duteneko egoera edo estatusa. Ospearen betiereko zabortegia. Itxaropen handien hoztegia. Autore handinahiek beren obrak harrotasunik gabe eta bereak baino hobeak inbidiarik gabe aurkitzen dituzten lekua. Iratzargailurik gabeko lotokia». Hori ere bada, doike.

*How many times can a man turn his head
Pretending he just doesn't see?
The answer, my friend, is blowin' in the wind*
B. DYLAN

| 1 |

Yeu uharteko hilerria: azaroaren 11

Frantziako presidentek urtero apaintzen zuten, II. Mundu Gerra akitu zenez geroztik, Yeu uharteko kanposantuan dagoen hilobi zuri bat. Zurikara erran behar nuke, denboraren ajeak ez baitu barkatzen eta dagoeneko kolorea lausotzen hasia baitu aspaldixkotik. Hilobia ez da sobera deigarria, kasik endesa dela ere erran nezake. Loreak paratzen zituzten han, urtero, azaroaren 11n, gerra handi hartako armistizioa ospatzen den egunean.

Mitterrand presidente sozialistak egin zuen azkeneko aldiz lore eskaintza hori. 1992a zen. Beraz, urteak egon zen apainketan horien egiten, edo loreak norbaitek erosi eta han para ziztaten agintzen.

Ez dira izen arrotzak

Adinekoak garen euskaldunoi ez zaizkigu arrotz egiten ez Yeu uharteaz ez François Mitterrand.

1976ko apirilean Yeura deportatu zituen frantses gobernuak ETAkide batzuk. Jose Migel Beñaran Ordeñana, *Argala* (*El moro* ezizenarekin ere ezaguna), haien artean. Beñaran Ordeñana bigarren saldoan ailegatu zen, haren aitzinetik dagoe-neko bertze zazpi militante eramanak baitzituzten uharterat. *Argala* urte horretan berean, urrian, Asun Aranarekin ezkondu zen uharte hartan. Eta handik bi urtera, Angelun bueltan zela, BVE izeneko ultraeskuindar taldeak jarritako bonba batek lehertu zion gorputza. Hola hil zen, hola hil zuten.

Biziki garai nahasia zen aldi hura. 1977aren hastean hamahiru ETAkidek segitzen zuten uharte hartan.

Bitartean, Espainian gauzak aldatzen hasiak ziren. Madrildigo Gobernua frankisten gehiegikeriak betiko estaltzekotan zen, eta, horrekin batera, preso politiko guziak handik hilabete batzuetara libre utziko zituen amnistiaren oinarriak prestatzen ari zen. Eta deportatuen egoerak, egia da, ez zion sobera mesede egiten Parisko gobernuari. Zeren uharteko biztanleek aski ongi hartuak baitzituzten beren inguruan. Bi Estatuak, arazoez. Hori dela eta, Gutiérrez Mellado presidenteordeak eta Michel Poniatsky Barne Arazoetako ministroak elkarren artean erabaki

zuten ETakoak handik ateratzea zela hoberena, eta tren batean sartu zituzten Bordele bidean. Hobeki hola, zeren egun haietan Euskal Herrian jendea berotzen hasia baitzen, eta protesta bateratu bat antolatzen: lagun andana bat, guziak oro, elkarrekin eta egun berean, Yeura joanen ziren. Zalapartaka. Eta hori ez Frantziako Gobernuari komeni zitzaion, ez Espainiakoari.

Mitterrand izena ez zaigu, bada, batere arrotza adina dugunoi. Tiki-tkitik politikan sartua, alde batean ez bazen bertzean, 1981-1995eko tartean Errepublikako presidentea izan zen. Kargu hori hartu baino lehenagotik ETako militanteak hasiak ziren dagoeneko babes hartzen Iparraldeko lurraldeetan, Hegoaldea utzi eta hara joaten baitziren altxapeka ihes. Gobernuaren administrazio bulego batek, *Office français de protection des réfugiés et apatrides* (OFPRA) izenekoak, eskuratzen zizkien iheslari haiei behar zituzten paper eta dokumentazio ofizialak, inor ere giblean usainka izan gabe han trankilago bizi zitezen.

Frantziak ez zuen behin ere konfiantzarik izan Francoren erregimenarekin eta ez, hasteko, ondokoekin ere. Horregatik hartzen zituen han iheslariak: Francoren eta diktaduraren kontra egiten zen guzia ongi baitzegoen, haien ustez. Burgosko epaiketak (1970) areagotu zuen ikuspuntu hura, kontuan izanik mundu osoan izan zuen oihartzuna. Carrero Blancoren hilketa izan zen bertze urrats bat, munduaren aitzinean gertatua. Gero liburuetara eta zinemara ere eramán zuten ekintza hura. Eta azkená, erresistentziari begi ezin hobeez behatzeko, 1975ean Francoren agindu gupidagabeaz sortu baitzen izu-ikara eta sufrimendua, orduan fusilaturik hiru FRAPkide eta bi ETakide. Gogoan dut nola eman zuen horren berri antiojodun ministro batek, afal orduko telebistako berrietan, ahoan zigarreta zuela: «Francok ez du onartu azkeneko eskaera». Iduri zuen eguraldiaz

ari zela, eta ez familia batzuen izugarriko eta debaldeko minaz. Hondarribian nintzen.

Handik bi hilabetera zendu zen Franco.

Espainiako demokrazia lehenbiziko urratsak halako moduan egiten hasi zelarik, ez ziren gauzak sobera aldatu iheslariei zegokienez. Nahi bai, baina Suárezen Gobernuak ez zuen Frantziakoa konbentzitzen. Terrorismoa urruneko kontua zuten *Gauche Divine*ko frantziarrek. Pentsa zenbateraino non Martín Villa ministroak proposatu baitzuen behin betiko debeku egitea Giscard d'Estaing presidenteari: ez zedila bere bizi osoan Espainian sartu. Giscard ez zen, jakina, *Gauche Divine*koa (kontu hauetan bederen).

1982an hautatu zuten Gorteen Felipe González Espainiako presidente. Nahiz bi presidenteak, Frantziakoa eta Espainiakoa, sozialistak izan orain, eta zein bere tokian aski berriki hautatuak gainera, arazoak bere horretan segitu zuen, konponbiderik gabe. Mitterrand estradizioen kontrakoa zen, Frantzia beti izana omen baitzen iheslari politikoen babesleku, hori zen-eta berak inondik ere aldatu nahi ez zuen tradizioa. Horrek prestigioaz betetzen bide zuen Frantzia eta.

Eta..., gainera, terroristak? Euskaldunak iheslari politiko hutsak ziren. Hala ikusten zituen hango Gobernuak. Horren lekuko argia, bat bederen aipatzeagatik: 1974an Madrilgo Correo karrikako atentatu izugarri hura dela eta, Frantziak uko egin zion baiezkua ematea Espainiako Gobernuak 1877an sinatu hitzarmen batean oinarriturik egin zion eskariari, zeinak jatetxe hartan lehegailua paratu zuten bi kideen estradizioa eskatzen baitzuen.

Gauzak aldatzen

Baina, zernahi gisaz, zerbait aldatzen hasia zen dagoeneko. Eta hain errotua zen babes-politika hori ere hutsarte eta arrailak erakusten hasia zen: hola, garai hartan estraditatu zituen Frantziako Gobernuak Europako bertze herrialde batzuetako zenbait iheslari, Italiara (*Brigate Rosse*) eta Alemaniara (*Baader-Meinhof*). Eta aldaketa hori indartu zen, eta aitzinat segituko zuen, hemen azalduko ez ditudan bertze hainbertze faktoreri esker: *Iparretarrak*, BVE, GAL, Espainiako polizia Frantzian erasoan...

Iheslari politikokoak direla eta, lurralde aske hura iheslari politikoen babesleku izatetik gaizkileen «santutegi» bihurtzeko bidea hartzen hasia zen, omen, batzuen ustetan.

Frantziakoak Espainiako presidentearekin izan zuen afari baten ondoan, hola laburbildu zuten, prentsa aitzinean, mahaian gertatua: «*Dîner avec Felipe González: un accord est trouvé sur l'expulsion des Basques*». Jakina: afari ofizial hori baino lehenago, bi-tartekariak (horietarik bi, Euskal Herrikoak) ibiliak ziren dagoeneko isilean bere lanak egiten. Iheslarien kontuaz gain, bertze puntu batzuk ere paratu ziren mahai gainean: Espainia European sartzea, Espainiako Estatuak Frantziakoari tankeak eta teknologia militarra erostea, eta abar. Ergelkeriak, ikusten baita.

Gonzálezek zupada eman zion Fidelek oparitu zigarro puru habanoari, kea inguruan hedatuz. Eta hankak gurutzatu zituen.

Eta hola, Frantziako agintariek 1945eko lege zahar bat armairutik atera, eta poliki-poliki hari hautsa kentzen hasi ziren. Lege atzendu hurran hartaz baliatu ziren, gustu handiz: hamaazpi iheslari atxilotu zituzten handik egun batzuetara. Sei Panamara bidali zituzten, gainerakoak Frantziako zenbait muturretan hedatu zituzten. Gero, bertze hiruretan hogeita hamar bat lagun munduko zenbait tokitara urrundu zituzten, eta Ameriketara eta Afrikan barna sakabanaturik utzi zituzten. ETAkideen kanporatze politika horrek 1990era artio segitu zuen. Erbeste-ratutako anitzek toki horietan berregin behar izan zuten beren bizimodua.

Erbeste-ratze politika berri hori ez zen izan Frantziaren afera bakarrik. Bertze herrialde batzuetan ber gauza hasiak ziren egiten ETAk iheslariekin. Belgika aitzinatu zen, eta bi iheslari bidali zituen gibelat Espainiara. Bat berehala gelditu zen aske. 1984 zen. Irailean onartu zuen hiru iheslari gehiago Espainiako poliziari entregatzea (ez, inondik ere, eskatutako guziak, horietarik batzuk Togora bidali baitzituen). Handik hila-bete batzuetara horietako bi absolbituak gelditu ziren, aske, kondenatzeko proba aski ez izanik.

Politika horrek guziak istilu larriak sortu zituen Hegoaldean, greba orokorra deitu zuten, ETAk hiru guardia zibil hil zituen berehala...

Dena den, kontua da urteetako tradizio hura, Mitterrand jaunak horrenbertze maite zuen tradizio hura, hausten hasia zela hola. Eta behin atea irekirik, haizea sartzen hasten da: munduan ez da hori kontzen ahal duen tradiziorik.

Hilerriko hilobia

Beraz, badakigu zerbait Yeu uharteaz eta Mitterrand presidenteaz. Iheslarien uhartea zen Yeu, han biltzen baitzituzten. Frantziako presidentea zen Mitterrand, sozialista, Frantziako Estatuak iheslari politikoen babesleku segi zezan nahi zuena, baina tradizioa azkenean hautsi zuena. Ideologiaz, berdintasunaren aldekoa doike. Eta, koherentziak eskatzen duenez, faxismo edo nazismoaren kontrakoa ere, doike, ez da erran beharrik. Edo?

Norena zen, orduan, lehenbiziko lerroetan aipatu dugun Yeu uharteko hilobi zurikara galbar hura? Nor zen, azaroaren 11n, I. Mundu Gerraren Armistizioa sinatu egun markatu hartan, Frantziako gobernuek urtero, Mitterranden tradiziozko aginduari jarraiki, lorez betetzen zuten hilobi hartan marmolapean zegoena?

Bada, hilobian bertze erbesteratu baten gorpuaren hondarrak zeuden. Ez zen neska puxenta baten atsedean hilobia. Han lurperatua, hiritartasunez, nazionalitatez eta pentsamoldez, gizon frantses peto-petoa, ez zen zalantzarik, eta militarra, gainera: PHILIPPE PÉTAINE, MARECHAL DE FRANCE diote altzifre ongi apainduak inguratzen duten hilobiaren estalkiko letrek, buruan gurutze eder bat ageri dela.

Kanposantura hurbildurik, ez duzu berehala atzemanen hilobia. Atetik sartu eta eskuinaldera behatu behar duzu, isiltasun

eta ilunpe arraituan. Altzifre horiek ikusiko dituzu, bat garaia kendurik, apalak gainerakoak, ez deigarriak. Zabor ontzi batzuen gibealeko aldean. Iduri luke xoko hartan akitzen dela hilerria, eta zuhaixka horiek lurpean dauden hondakin guzien edergailu gisa paratuak direla kanposantu muturrean. Ez da hala. Zuhaixkek Petainen hilobia inguratzen dute, kanposantuan sartzen direnen begietarik altxatu nahi balezate bezala, ezkutuan utzi, bazterra antolatu dutenek ahalkea senti balezate bezala. Ni harat inguratu nintzelarik, hilerrian ez zen inor, eta hilobian ez zen lorerik ere. Eskerrak, ez bainuen lilirik ikusi.

Inguruan ditu uharteko andre-gizon xumeen egoitzak, eder berezirik gabe.

Verdugo garaile

Adinekoa izanik ere, gehienek liburuetarik ikasi dugu nor zen Pétain militarra. Gerra Handian parte harturik, ospea bereganatu zuen, eta «Verdugo batailako garaile» gisa ezagutzen zuten harrezkeroztik. *Prestige* handia zuen hiritarren artean. Militarren buru lehenik, eta Gerra ministroa 1934an.

Hitlerren armada Europa hartzen hasi zelarik, Frantziako armada ere, goiti-beheiti batzuekin nahi bada, berehala eta berandu gabe erori zen nazien esku. Naziak egin zuten Parisen sartu eta haien estandarteak eraikinen leihoetan denek ikusi eta ikaratzeko gisan paratu. Frantziako Gobernuak ihes egin behar izan zuen orduan. Bordelen bildu zen. 1940, ekaina. Eta han egin zuten kabinete berri bat sortu eta, holakoetan ohikoak izaten diren goiti-beheitien, dimisioen eta zalapartadun kalapiten ondotik, Pierre Lavalek erabaki zuen Philipe Pétain izanzen zela Ministro Kontseiluaren buru. Egun batzuen buruan Vichyra joan ziren, Bordele ere alemanek harturik. Sanferminetan egin zuen bilera Frantziako Nazio Biltzarrak Vichyko Kasino Handian, eta gehiengo zabal batek erabaki zuen botere eratzaile osoa Pétainen esku utzi behar zela: 572 boz alde, 80 kontra eta 20 abstentzio. Parlamentarioek harakiria egin zuten hiritarren aitzinean. Hola eraitsi zuten biltzarkideek, eta lurrera bota, Frantziako demokrazia. Frantziako Estatuaren agintaritza osoa Pétainen esku utzi

zuten, hobekien ikusten zuena nahi zuen gisara egin zezan, eta nazi-ekin armistizioa sinatzeko eskatu zioten. Hitlerren armadak Paris hiriburua, Frantziako Iparraldea eta Atlantikoko kostaldea zuzenean bere gain hartu zituen. Dagoeneko Erresuma Batuak eta haren koloniak bakarrik, aske izanik, zituen etsai. Charles De Gaulle jenerala kanpoan, alemanen kontrako laguntza bila.

Frantziako gainerako lurraldeak Pétainen agindupean gelditu ziren, teorikoki bederen. Egia baita, zernahi gisaz, han ere armada alemaniarrek nahi zuena egiten zuela. Frantziako Errepublikak desegina zela onarturik, Lavalek eta Pétainek sortutako egoera berriari Estatu Frantsesa deitu zioten, Errepublikak hitza galdurik. *Lana, Familia, Aberria* zen erregimenaren leloa. Eta praktikan egin zuten Vichy izeneko hiriko hoteletan ezarri administrazio berriaren bulegoak. Horregatik deitzen zaio «Vichyko Erregimena» Pétain buru zuen Frantzia okupatuaren zati horri, itxurak egiten zituen balizko erregimen ultrasukuindar horri.

Pétain kolaborazionista hutsa izan zen alemanekin, ideologiaz faxista: espresuki arbuiatu zituen parlamentarismoa, botereen banaketa eta Frantses Iraultzak bulkatu aldaketa guztiak. Orotarat, 17.000 dekretu inguru aldarrikatu zituen. Bere agindupean zituen lurraldeetatik anitz judu, ijito, homosexual edo ezkertiar eraman zituzten kontzentrazio esparruetara, eta han hil ziren. Alemanen babesean egin zuen hori guzia.

Gerra akitu zelarik Pétaini heriotza zigorra ezarri zitzaion. Adina zela eta, zigorra aldaturik, Yeu uhartera bidali zuten, geroago Espainiako agintariekin ETAKideekin eginen zutena aitzinatuz, eta han hil zen, ni sortu urte eta hilabete berean. Ez zioten «Frantziako Mariskala» titulua egundaino kendu. Hilobiak berak ere erakusten du hori.

Gero loreak eramaten hasi ziren, urte aldexka bat lehenago ezarria zioten heriotza zigor hura atzendurik, nonbait. Eta horra

nola Frantziako presidente sozialista eta demokrata hark urteetan zehar omendu zuen ultraeskuindar faxista hura. Bai berak, bai frantziarrek iraganaren oroimena galdua zutela erakusten du horrek guziak. Nahiago izaten baitugu gauza ilun eta itsusiak atzendu, isiltasuna sortu, orrialdea leitu gabe bueltatu, hobeki bizi gara denak, aise trankilago. «Argien herrialdean, amnesia suizida», ikusi zuen behin Pierre Adrianek kamioneta batean erro-tulatzailaz margoturik. Hala diosku Paveseren azken egunez eskribitu duen liburuan. Historiak ez du inoiz ere iragana gogora ekarri nahi, erran zuen, naski, García Monterok. Denak heldu dira bat.

Denak? Ez: holakoetan beti badira galtzaileak, haien nahikarien aurka isilik egotera behartuak, bortxatuak, beti bai baita erabaki horietan inoiz ere parte hartzeko hauturik izan gabe dena zerutik edo infernutik zigorra gordin-gordinik gainean erortzen zaion jendea. Biktimak. Basakeria horietako biktimak, hain zuzen. Haiei hitza kendu zaie. Haiei ez zien inork galdetzen ze lore nahi zenituzke han, arrosak edo geranioak, ze koloretakoak, nolako apaingarriak nahi zenituzke aurren Pétainen hilobian. Ez, galdegin gabe, urtero, azaroaren 11n, norbaitek zintzo-zintzo erosten zituen omenezko loreak presidentearen zeharkako aginduz. Frantziak goi mailako traidore gisa kondenatu zuenari loreak presidentek. Denen izenean egiten zuen hori, biktimen izenean ere. Zoritzarrez, galdetu izan balitzaie ere, antzek ezinen liekete erantzun, hala nahi izanik ere: dagoeneko hilak ziren. Pétaini esker. Biktimak berriz ere biktimizatuak. Hori nola hasten diren bizitza-ziklo berriak.

Dena atzendu nahian. Baina behin Paco Etxeberria EHUKo irakasle eta auzitegi-medikuari aditu nion gisan, «Atzenezko eskubidearen parean, memoriaren eskubideak beti du lehentasuna». Kasu egin diezaiogun.

Hori ez da Frantzia

Urteak egon zen Miterrand jauna naziak egin kaltea toreatzen. «Vichy, hori ez da Frantzia», zioen, han gertatua Frantziatik urrun zen bertze lurralde bateko inguma gaiztoa baizik ez baltz bezala. Geraldine Schwarzek eskribitu liburu eredugarrian, *Les Amnésiques*, luma zorrotzarekin kontatzen digu hori guzia, aski ongi. Paradoxikoa da, baina ohitura ahalke emangarri hura, erran nahi baita, presidentearen aginduz hilobi hartara loreak eramatearena –zenbait hiritarrek gaur egun ere ber gauza egiten segitzen dute, omen–, hara nola, azkenean eskuineko presidente batek kraskarazi zuen. Jacques Chirac-ek, hain prezeski, 1995ean. Hori da paradoxa.

Chirac izan zen lehenbiziko estatuburua ilundu nahi ziren zenbait konturi zegokien puntua paratzen. Berak onartu zuen publikoki Vichyko kriminalen ekintzak Frantziako historiaren parte zirela: «Oren ilun horiek betiko zikindu dute gure historia, eta gure iragan eta tradizioak iraintzen dituzte. Bai, frantses Estatuak babestu zuen okupatzaileen erokeria kriminal hori».

Zenbait kontu ezin dira inondik ere atzendu, atzentzen baidituzu, ibilian-ibilian, berriz eta berriz itzuliko baitzara holakoak errepikatzen. Hori izan zen haren ziklo berria: gertatua azalera ekartzea, isildu eta estali beharrean.

| AURKIBIDEA |

1. Yeu uharteko hilerria	11	23. Erantzukizuna non akitzen den	75
2. Ez dira izen arrotzak	12	24. Jean McConville	79
3. Gauzak aldatzen	15	25. <i>Ezezagunak</i>	82
4. Hilerriko hilobia	17	26. Miseria guziak	88
5. Verdungo garaile	19	27. Taxitik deus erran gabe atera	90
6. Hori ez da Frantzia	22	28. Ziklo berria	93
7. Jendea itsu	23	29. Askatzaileak etxean	94
8. Ez da deus gertatu	27	30. Karrikaren indarra	103
9. Memoriaren galtzea	29	31. Printzipio ukiezinak aldatu dira	109
10. Hilobia airean	33	32. Debekuak... bertzerendako	113
11. Gutunak etxean, jende arrunta	36	33. Bakearen aldeko keinuak	117
12. Gizartearen historia, atzadura	40	34. Motxilaren pisu astuna	121
13. Txurroak, fusilamenduak, meza	45	35. Diaspora	125
14. Faxismoa	51	36. Estatuaren saldukeria	128
15. Malkoak euri balira	55	37. Tratu txarren kontu estalia	132
16. Demokrata bihurturik	57	38. Berdinketa infinitua	137
17. Gure begien aitzinean	61	39. Begiak erne	147
18. Isilik hobeki	62	40. Europa goibel	150
19. Atzeturaren goxoa	64	41. Arretaz prestatu egitasmoa	153
20. Kontatu ez zizkigutenak	66	42. Babes bila	156
21. Demokrata berriak nonahi	70	43. Bide zaila izan da	159
22. Biktimak galtzaile	72		